# ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORTZE ZERBITZUA





**Zalantzarik baduzu, deitu Arabako ESIko Txagorritxu AUOko Programazio Kirurgikora: 945007664**

Osakidetza

ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

# EBAKUNTZA EGIN BEHAR DIDATE TXAGORRITXUN

Ebakuntza baino lehenago, mediku batek kontsultan egingo dit azterketa; ahoa ireki beharko dut ondo nagoela ikus dezan.

## ZER EGIN BEHAR DUT?

Ebakuntza baino egun batzuk lehenago esango dizkiete eguna eta ordua nire gurasoei.



Dutxatu berria joan behar naiz ospitalera, erabat garbi, azazkalak margotu gabe eta belarritakoak kenduta.

## ERAMAN BEHARREKOAK:

Etxeko zapatilak, nezeserra eta nire jostailu gogokoena, ebakuntzara eraman ahal izango dudana.



## OSO GARRANTZITSUA:



Ebakuntzaren aurreko egunetan sukarra, gorakoa, beherakoa, eztul asko edo gaixotasun kutsakorren bat (barizela, etab.) baditut **ospitalera deitu behar da: 945007664** 

## EBAKUNTZA-GELAN…

- ✓ Guztiak goaz berdez jantzita, eta txanoarekin, baita ni ere.
- ✓ Makina asko daude, botoiz beteak.
- ✓ Erizain batek pegatinak eta kableak jarriko dizkit nire bihotza pantailetan ikusteko.
- ✓ Loak hartu aurretik putz egingo diot puxika  bati...eta esnatzean gurasoekin egongo naiz.

# GURASOAK: ERNE OTORDUEKIN!

Ezin da ezer jan, ez eta edan ere ebakuntza baino ordu batzuk lehen



## URTE BAT BAINO GUTXIAGO DUTEN UMEEN BARAUALDIA

- ✓ AMAGANDIKO EDOSKITZEA.
  Azken hartualdia ospitaleratu baino 4 ordu lehenago izan behar da.
- ✓ BIBEROIA/AHIA.
  Azken hartualdia ospitaleratu baino 6 ordu lehenago izan behar da.
- ✓ URA.
  Ur pixka bat edan dezake ebakuntza baino 2 ordu lehenago arte.

## URTE BAT BAINO GEHIAGO DUTEN UMEEN ETA NERABEEN BARAUALDIA

- ✓ URA
  Ur pixka bat edan dezake ebakuntza baino 2 ordu lehenago arte.
- ✓ SOLIDOAK ETA GAINERAKO LIKIDOAK
  Azken otordua 6 ordu lehenago egingo da

***Ezin da EZER hartu anestesia eman aurreko 2 orduetan***